

25/09/2009

Guggenheim "Musika elektronikoa museoan"

Art After Dark ekimena gaur itzuliko da Bilboko Guggenheim museora. Hilean behin egiten dute, Fever aretoaren laguntzarekin, eta, gauean, 22:00etatik aurrera, museoan dauden hainbat erakusketa bisitatzeko aukera ematen du, musika elektronikoarekin lagunduta. Gaur, bi erakusketa ikusteko aukera izango da: Pribatutik Publikora, Guggenheim Bildumak eta Bideoa Guggenheimeko bildumetan. Erakusketekin batera, Shinedoe, DJ Randy Ruiz eta DJ Kinkiren musika emanaldiak egongo dira.

Shinedoe Herbehereetatik etorritako musikaria da. Afrikako doinuetan eta 80ko hamarkadako erritmoetan oinarritutako musika egiten du, eta munduko areto garrantzitsuenetan jotzen aritu da. Besteak beste, Amsterdamgo Vip Club-ean eta New Yorkeko Harlem Stalker Club-ean jo du.

Shinedoerekin batera, Sevillatik (Espainia) iritsi den DJ Randy Ruiz ariko da. Hip hop estiloko musika egiten du, eta Tote King rap abeslariarekin jotzeagatik egin zen ospetsu. Gaur egun, produktore gisa egiten du lan, eta bere lan propioak ere kaleratu ditu.

Amaitzeko, Bilboko Fever aretoan dabilen DJ Kinkiren emanaldia izango da. Azken urteetan Europako areto garrantzitsuenetan jotzen aritu da, eta, besteak beste, Bartzelonako Salamandran eta Madrilgo Low eta Elastico aretoetan jo du.

Art After Dark ekimena gaueko 22:00etan hasiko da, eta 01:00 arte egongo da zabalik, Guggenheim museoko Atrio aretoan.

'ART AFTER DARK'

Non. Bilboko Guggenheim museoan.

Noiz. Gaueko 22:00etatik 01:00etara bitartean.